

## \* Hizpideak

## Lemarik gabe

Mikel Lizarralde  
mlizarralde@berria.info

Lemarik gabeko ontzi baten gero eta traza handiagoa du Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren egitasmoak. Azken urteotan, kolpeak bata bestearen atzetik etorri zaizkio proiektuari, eta, 2010eko maiatzean Joxean Muñozek dimisioa eman zuenetik, inor ez da gai izan kultur proiektu bat zehazteko. Horren seinale, zentroak laster beteko ditu bi urte zuzendaririk gabe.

Tabakalera administrazio kon-


tseiluaren barruko desadostasunak gero eta agerikoagoak direla, zaila egiten da proiektuaren etorkizuna irudikatzea, are gehiago alde batek —Jaur-laritzak— eta besteak —Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak— oso asmo ezberdinak dituztenean. Antolakuntza eta ekonomia abantailak aipatuta, Blanca Urgellen taldea tematu da Tabakalera eta Donostia 2016ren egitasmoak elkarren eskutik joan behar duten ideiarekin. Lau urtera begirako proiektu batek, ordea, baldintza lezake 10-20 urte barru Euskal Herriko kultur azpiegituren ardatzetako bat izan daitekeena?

## Hiriak

Hiri batera iritsi, lehen inpresioak jaso eta ikusten ari dena gustatzen bazaio, beti galdera bera egiten dio bere buruari: biziko al nintzateke hemen?, lortuko al nuke zoriona deitzen dugun, baina zoriona ez den bizipozezko status gutxieneko hori?, zenbat denbora egingo nuke bertan goxo eta bertan geltoki?

Imajinatzen hasten da bizitza berria; terraza batean eseri eta jendearen nolakoari erreparatzen dio; azokak bisitatzeko dituzte; gorputza klimara ohitu bitarteko sentsazioak mamurtzen ditu... Baina hiri iritsi berria aurkitzen ari dena berak bere baitan eraman duena da. Badaki bere egoeraren eta momentuaren galbahetik pasatzen direla hiriar buruzko bere iritziak; badaki maleta pertsonalenean daraman ekipajearen nolakoarekin —ilusioa, nekea, jakin-mina, abaildura...— marrazten dituela bisitatutako hirien mapak.

Ez zaizkio katuak gustatzen. Erromako katuak ditu salbuespen, hondakinen artean eta eguzkiaren epelean goxo.

Hitz beste  
Anjel Lertxundi

## ☺ Zaldieroa

## De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com

NAFARROAKO  
KATEBEGI  
GALDUAK  
IN:  
Forua gora  
Forua behera



## Besterik gabe

Hitz konbinazio literarioek garunean duten eraginaz irakurri genuen aurrekoan egunkari honetan. Hizkuntza poetikoa ikergai duen zientzialari batek ikerkuntzaren ondorioz egiaztatzen zuen oximoron izeneko figura literarioak entzuteak aktibitate handia sortzen duela garunean. Interesgarria. Berehala irudikatu nuen, garuneko aktibitate berezi horrek osasunerako onurak zekarkielako ziurtatuko balitz, sortuko zen terapia sendagarria: «Jar ezazu oximoron bat zure bizitzan; bi oximoron hobez; egunero, gosariarekin batera».

Ez da denbora asko otoitzaren onura fisiologikoaren berri izan nuela. Orduan ere, egindako proba zientifikoen bidez, otoitz egiteak hainbat gaixotasunen sendaketa azkartzen zuela erakusten zuen psikiatra batek. Estatistikoki frogatua zegoen egiaztapena. «Otoitz egin ezazu egunero, eta gaixotasunaren aurkako defentsak garatuko dituzu».

Denbora gehiago da ezagutzen

Larrepetit  
Arantza  
San Sebastian

Hitz konbinazio literarioek garunean duten eraginaz irakurri genuen aurrekoan egunkari honetan

ditugula, halaber, sexua praktikatzearen hobariak. Loaren kalitate hobetzen da, estresa gutxitzen, gorputz azalaren distira areagotzen... Eragin horiek ere frogatuta daude. Beraz, «larrua jo ezazu (gauero) eta krema hidratatzaile eman gabe bizi ahal izango zara».

Ez nago horrelako ikerketen aurka. Pertsonari ona ekar dakiokeen guztiari ongi etorri! Baina, gizakion joera horrek, guztiari —baita ukiezinari ere— baliagarritasuna bilatzeko joerak, alegia, zer pentsa ematen dit.

Aukeran —eta ikerkuntzak ekartzen digun ona ukatu gabe— nahiago ondorioari begiratu gabe egitea. Doan. Musu truk. Ezer ez lortzeko. Poema batek esnatu digun plazerak eraginda, bertsoak errepikatzea. Egunsenti zoragarri batek ekartzen duen lilurari erantzunez, otoitz egitea. Lagunaren gorputzak sortu didan kitzikatzeak bultzatuta, larrua jotzea.

Edo, beste modu batez esanda, gogoak eskatzen didalako. Besterik gabe.

## ✉ Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarreak barne, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

## Txillardegijatorriarekin

Euskalari, euskaltzale, euskaldun bihotzeko, eta, garrantzitsuena, pertsona aske bat joan zaigu. Txillardegijatorriarekin, herri batek horrelako bat sortzeko hamarkada asko behar duen horietako pertsona berezi eta ezinbestekoa izan da Euskal Herrian. Ingeniaritzaren ezagutzatik euskararen normalizazioari izugarriko laguntza eman zion, euskara batuaren aitetako bat bihurtuz. Baina, horrez gain, euskal soziolinguistikaren aitzindari nagusia ere izan zen, ikerketa mailan zein gizartearen sentsibilizazio mailan.

Euskararen jatorrirako ere ekarpen garrantzitsua egin zuen, adinez nagusia izanik eta osasunez makal egonda ere, Arabako Iruñako ostrakak aztertutako ondoren, egiazkoak izan zitezkeela ondorioztatu zuene-

an. Orduan «Iruña Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua» izenpetu zuen, beste 2.000 pertsonekin batera, horien barruan Iglesias, Elepuru eta Mujika moduko hizkuntzalariei ausartekin.

Txillardegijatorriarekin, ostraketan agertzen diren testuek ez dute zertan kontra egon behar orain arte izan dugun ikuspuntuarekin. Ostraketan agertutako aditz batzuk aipatu zituen (nor Txillardegijatorriarekin baino hobeto aditzen gaiari buruz hitz egiteko!), esanez, aditz forma zahar batzuen aztarnak izan zitezkeela. Txillardegijatorriarekin ez zuen sinatu manifestua berehala. Zalantzak izan zituen baina txostenak eta eztabaida ikusita, gaian sakondu eta ondorio hori atera zuen. Zein beharrezkoak diren Txillardegijatorriarekin pertsona aske eta irekiak! **Koldo Urrutia**. Arabako Iruña Argitzeko Batzordea.